

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Irugarren urtea - Pamplona - Abril - 1968 - Jorrailla - Iruña. 26'gn. zenbakia

DIRECTOR: J. E. URANGA

VALCARLOS

Saludo del Sr. Alcalde



Hoy es día de alegría para Valcarlos, al honrar a un hijo ilustre del pueblo. Celebramos aquí el descubrimiento de una lápida, que conmemora los cien años de Enrique Zubiri.

En esta casa vivió los años de su juventud, desde esas ventanas vieron sus ojos esos verdes prados que él los plasmó en sus cuadros de gran pintor. Nuestros prados tienen un verde tan diferente de los demás, que sólo él pudo pintarlo. Desde niño lo vio así, y así nos lo dejó en sus famosos cuadros. Llegó a ser profesor de la Escuela de Artes y Oficios de Pamplona.

Pero no sólo fue pintor. Se dedicó al estudio destacando como escritor.

Valcarlos no podía cruzarse de brazos. La Excm. Diputación Foral de Navarra le había homenajeado ha-

ce tiempo y el Ayuntamiento tenía una obligación que cumplir con Zubiri, por ser hijo de un funcionario municipal. No olvidemos que su padre fue Secretario de este Ayuntamiento.

Zubiri —Manezaundi— fue siempre un enamorado de su querido LUZAIDE; siempre habló elogiosamente de su pueblo, como buen valcarlino que lo fue en su vida.

Muchas gracias a todos, en especial a la Academia de la Lengua Vasca y Príncipe de Viana, que han enviado a sus miembros para acompañarnos en este homenaje. Desde ahora Zubiri tendrá una placa colocada en esta fachada como homenaje de este pueblo de Valcarlos, que sabe premiar a su hijos.

El Alcalde: JOSE BAZO

B I D E K O A R R A N O A K

Ez da pollit arranoz mintzatzea. Ez dira usoak. Baño, oiek ere Jainkoak eginak... Lengo batez lurrean ikusi ditugu, gertu, arrika jotzeko moduan.

Luzaiden ginuen festa; Enrike Zubiri, eskual idazle eta artist ospetsuaren omenaldia. Eskualtzaindiak eta Nafarroak Diputazioan egina zakoten bezala, bere erriak ere ohore bereziak egin nahi zizkion. Arri marratu bat agertu genion bera bizi izan zen etxean. Otsaillaren 17.

Elur kutsia ba zen Ibañeta kaskoan. Portua jeistean, dela erbi edo axeri ikusi izaten da bidean. Sekula ez bezala, arranoak genituen oraiakoan; eta ez bat edo bi: amasei edo amazapí. Gelditu ta arrika ari izanak gera Auntxaina'ren peko zolan. Janak ziren eta beren egal luze aiekin lurra jotzen zutela, ezin ziren egaldatu. Auntzak bezala an joan dira beren ankaz, mendia gora.

Gero karrikan festa ederra. Nexkatoak dantzari arropan eta zonbait «Bolant». Gustatu zauzkigu nexkatoen jantzi berriak. Alare, ez dugu uste «Yantza Yauziak» mutilekin egin behar lituzketenik. Iruñen elgarrekin asiak dira; bana, nasketa ori ez da huntsa ikusia. Bego mutilendako Luzaideko josteta seriosa.

Ori bai, emakumeak festa edertzen dute eta mutilen inguruan ez dira gaizki izanen. Beharrikako oriek, Manezaundiren omenaldikoan. Joan-etorri guzitan lagundu gaituzte eta ondarrean «Agur jaunak» rekin despegitu. Milesker biotzez.

Baño, ba dugu beste zerbait an bildua: «nork erran eni, garai batez, «Príncipe de Viana» ala konprenitu behar nuela!», erran zaukun dantzaritako nexkato propi batek. Eskuara leitzen zuelako marka! Eta Bernardita ere berriz eskuarari lotia! Igaz, eskuara ahantzia zuela erran zidalarik arrano beltzak ikusi nituen Luzaideko zeru zolan. Oraiko aldian arrika lekutu ditugu, ez baida hilen Manezaundiren herriko eskuara extia.

Anitz dakienak gehiago jakin nahi du; guk dakigun pixka ez dezagun galdu. Aintzinekoeri ohore egiten diegu.

J. M. S.



NAPARROKO BIZITZA



ERRONKARIKO USKARA

Erronkari'ko Eskuararen il-ezkilak zenbat aldiz ez dira joak! Izan ere, latzaren latza da erri baten eriotza. Neguan ostu gabeko gaztain zaharra heldu dakit gogora; elurrak autsiko ditu eta etorriko lurrera aren molokots bakarrak. Eta mundu bat, erri baten nortasun osoa joango da gizon bakoitzaren biotzean. Il-ezkilaren doñu iluna...

Ez dira oiek gaur Naparro aldeko aizeak. Il ezkil guzien ondotik Erronkari'ko eskuara ez da erabat ila. Eskualdun bat bizi den artean bizi da gure erria; eta gizon orren barneko mundua gure eskutan da. Aintzinekoen lokarriak ez dira autsiak. Nortasunaren su zaharra, hauts azpian bada ere, antxe dago bizirik. Zertako ez aizatu eta Pazko eguneko su berria sortu?

Bizian amets aundi bat behar luke gizon bakoitzak. Eta zer gauza zogarria den amets luze baten azaletan eskuak trabaturik senditzea; ametsaren itzalak argiaren alderdia agertzen duen eguna...

Au guzia ekartzen dit gogora adiskide langile baten jokabideak: Bere ametsa, Erronkari eskuarari iltzen ez uztea. Ango gaztain zahar bakoitzaren zuloan landare gaztea ikustea. «Anitx konten» izango litzake oraiakoan ordainak ikusteaz.

Baño, nun ginuen erakusgaia? Au izan da J. Estornés Lasa jaunak bete duen lenbiziko zuloa. «Erronkari'ko Uskara», liburuaren izena. Aurrendako egina da. Etzen lan errexa; erditze estua izan du, baño sortu da. Itzez itz, letraz letra, Erronkari'ko eskualdunen agotik entzunak izan dira an diren erranak.

Ez ori bakarrik; angu doñu eta itzen indarra ez da egunero ibiltzen duguna eta batzuk begi txarrez ikusiko duten teiltatu-txori bat sartu du egileak; itzen azentua delako kokka. Geroak estimatuko du.

Batez ere, aberastasun aundia liburuak bigarren zatian dakarrena; ipui, erran zahar, itzulpen eta beste irakurgai jakingarriak. An emenka zabilten gaiak, bilduma bakarrean. Eskualtzaleak jakin beharko dute Erronkari'ko gaitan liburu onen izena.

Laguntzale onak izan ditu egileak eta denen izenak an dira nunbait ezarriak. Marzelino Garde dugu orai gogoan. «Príncipe de Viana» elkargoaren babes eta eskualdiarekin argitaratua izan da.

Nere poza Erronkariko ama zaharrari eriotzeko orduan aurra sortzea!! Gorri samina du aurpegia, erditze gogorraren minak bezala. Ametslari iduritu zaigu; bizi nahia. Il soinuak ezpainetan lotu ta sortu berriaren pozetan asi dira ezkilak. Bizi da «Erronkari'ko uskara». Aleluya.

J. M. SATRUSTEGUI



Luzaide'ko ametsak

Erri bakoitzak bere izaiteko modua du eta bere buru-hauste bereziak. Luzaide ez da aberatsa. Oihanetik du erriak etorgi eta mozkin oberena. Baño gastu aundikoak dira an egiten diren lanak. Duela lau bost urte bazter etxetako bideak egin zirelarik alkate jaunak zion bezela:

—Luzaidek ez luke erri bat izan behar; sobera buru-hauste ba du. Izatez, Baztan, Erro eta Ulzama bezala, ballera bat da. Ez dago ikusi baizik: Ibañeta kaskotik Arnegy'ko zubira ogei ta iru kilometro bideberri ba ditu; eta ez da ortan fini Luzaidetako bide kontua. Beste amazapi kilometro ba ditugu baserriara eginak...

Lan au egin zuelarik Naparroan buru bezala jotzen ginuen Luzaidetako erria. Egiten ahal zen lanik balio-senetakoa auxe da, baserriak bai dira Eskualerriaren biotza eta arima. Geroztik beste erri batzuk jarrai dute enenplu bera.

Garay artan eginak dira ur-ekarte, mediku-etxe, eskola berri eta beste anitz gauza. Orai eliza berri-ze, zine, haurren baratze eta beste. Ba ote dute asmo berri zombait esku tartean?

—Aundiena oraiako ametsa da, —erantzun digu alkateak—; Santiago plaza. Pilota-joku berria, otoak uzteko lekia, teatro eta aurren josta lekua barne dira amets zabal ontan.

Erriko etxean ikusiak ditugu asmo guzien agiriak. Paper eta karkulak berak zer gosta ote dira? Baño, lan oiek egingo diren egunean ikus-



tekoa izango da Luzaidetako erria. Norbaitek egitekotan, berek...

Frontera delako muga ori du Bal-karlos'ek eta, naiz burni-ola zaharrak aspaldi utziak diren baztarrera, jende pasaiatik sortu lezake bizibide polit bat. Asieran ostatu izanak dira Luzaidetako lenbiziko etxeak. Arz zer dion pundu ontaz alkate jaunak:

—Ez dugu ahantzia Aduana kontua. Duela egun gutxi mintzatia naiz agintariekin. Bere maillako aduante buru egiten du gureak. Ortako, urtearen buruan diru gehiena berak eman duela esan nahi dugu. Lenengo maillara goratzea galdegina da.

Iduri du onartuko dutela, eta orduan Irun-Hendaya'koaren lerro berean izango gira.

—Ez da lekurik! Kamionak gaizki dabilta!

—Dena berri beharko du. Pape-rrak eskuan dauzkagu. Nik neretik emaiten diet, kitorik, behar den lur guzia, —dio Bazo jaunak—. Iruñen dago fruitak begiztatzeko lekia; xuxen sar laizke emendik Frantzira.

—Eta bideberria?

—Lan aundiak egin dira Ibañetan. Ez da lengoa. Jendeak badaki eta pasaian ageri da. Baño, ez da dena egin: Arnegy'k PAU ondora moztu laike beste bideberri batekin, eta kilometro anitzen abantaila izango lukete PARIS'ko bidean joan behar duten xoferrak.

—Ametsak ote?

—Ez ginuke nahi ametsetan gelditu! Ez da au fabrika lekua. Bazter-turik bizi gera. Eta zerbait behar! Fronteran gira eta nik uste ortatik baliatzen ahal ginaizkela...

Ez da gaizki errana. Nola nahi dela aintzinamendu aundiak ba dira Luzaiden; eta besteak xuxen gerta ditela, merexi dute ta.

SAGI

ESKUALERRIKO LEIOA

BILBO'RAÑOKO AUTOPISTA FRANTZIAKO MUGATIK

«Gauza botata dago» esaerra zaharrak erraten duen bezela guk ere Bilbotik Behobiaranoako autopistari buruz: AUTOPISTA ezinbestez, nai ta naiez, egiteko prest da», erranen dugu.

Erbesteko Langintza-etxe batek egingo du emendik bost urtetara; beraz 1973'era bukatua izanen da.

Berri pozgarri denentzako, baño batez ere, oroz gainetik gure anaiak diren Gipuzkoa eta Bizkaikoendako.

Langintza etxe orrek Madrilgo Gobernuari eskatu dio Autopista bukatu ondorean Eibarretik (Maltzagatik argiagotzeko) Bitoriaranoako beste Autopista bat egiteko. Orduan au dena eginik Mugaz onako Eskualerri-ko lau Iriburu edo kapitaletatik iru oso ongi elkartuak geldituko dira.

Guk naparrok ustean gaude gure Diputazioeak «zerbait» egingo duela Europara joateko bidea laburtzeko eta era berean aisago, errezago eta egokiago bidegiteko. Nola? Iruñetik Bayonarako bide zabal-zabala egiten? Iruñetik Gipuzkoako Pasaiarano beste ainbeste eraikitzen? Dena dela Naparroak bat edo beste egin bear du Itxasorako bidea ttipituz, Frantziako ibillera gutxiagotuz eta beste Eskualerriko ziudade nagusitara joateko oztopak kenduz.

Naparroako fabrika, lantegi eta lantokien egindakoek (emantzak, mozkina) bear dituzte bide berri, zabal, egoki eta ahal diren zuzenenak Eskualerri eta European aisa saldu ditezten. Eta Nekazalgotik eta Abelazkuntzatiok ezdugu erran beharrik zer aundiko gauza den gure bide berriak ongi berriatzea.

EUSKAL YAKINTZARI BURUZ SOLASKETAK BILBON

Yoan den illen amaikagarren egunetik amabostgarrenegun bost eleka eta solasketa izan dira Bilbon Euskal «Kultura edo Yakintzari» dagozkie. Santiago Apostoluaren Eskolategian izan ziren eta Karmele Errotae- taetxe andreañoak antolatuak.

Ona emen Yaun emalleak eta gaiak: **Ataun'go Aita Barandiaran** Apez txit agurgarriak «Aintziñetako euskaldunen pentsaera, bizimodu, eta izaera»-ri buruz solas egin zuen (euskerez). **Gabriel Aresti** Bilboko euskal poeta famatuak «Euskal Poesiaren pentsa- kera» artu zuen gaitzat. Erderaz mintzazu zan.

Eibarreko Yon San Martin jaunak euskerez «Euskal Yakintzaren auziak eta Erribaten eskubideak, batez ere Eskualerriari doazkie» gaiaz itzegin zuen.

Oriko Jorje Oteizaren partez **Juan Angel Etxebarriak** erderaz ele egin zuen, «Izkribatzaillen eta Irakurren auziak» gaitzat arturik.

Epailaren (Martxo) ren 15'ean **Luis Mitxelena** Izkuntzalari yakintsuak euskerez «Euskalerrita eta Euskera» gaiari buruz eman zuen bere solasketa.

Gure txalorik beroenak Deusto'ko Unibersidadeko Irakasle dan Karmele Errotae- taetxe Andreñoari «Euskal Yakitearen Solasaldi» aukerain ongi antolatatu dituelako.

RENE OSPITAL MUGAZ BERTZE ALDEKO NAFARROKOA IL DA

Frantzi aldeko Nafarroan sortu eta bizia zen Rene Ospita yauna. Aierra-ko errian jaloa 1926 urtean. Frantziako lurralde guzietako Kontseilari Nagusi multzo batekin Israele'ra joana zen yoan den illean eta an, Jerusalem'en, bere Euskal Erri maiteaz kanpo, supituki il berri da.

Berri negargarria bertze aldeko euskaldunentzako batez ere, baño bai ta ere euskaldun denentzako! Bere erribarren zerbitzatzeko eta laguntzeko prest zegoen gizona zen.

Aierra'ko Aiuntamenduan (Kontseiluan) 1953 urtean sartu zen, eta 1959'ean Alkatea izendatu zuten. 1964 urtean Frantzi-Nafarroko Bastida'ko Errialdearen Kontseilari Nagusia autatua zan Frantziako Kontseilari Nagu- sirik gazteena izanik.

Etxekoei eta bertze aldeko nafar anaieri gure doluminik sentikorrenak biotzez eta parte artzen dugu bere atsekabe eta naigabeen.

EL VASCUENCE, PATRIMONIO NACIONAL

«Se está estudiando la posibilidad de que los niños guipuzcoanos que lo deseen puedan estudiar el vascuence en las escuelas públicas; después de las horas de clase».

Esto ha dicho Joaquín Tena Artigas en San Sebastián; y es un bello gesto. Que —si se realiza— cicatrizará una honda herida abierta ya hace años en la carne, tenaz de Euskalerria.

HISTORIA

Yo he visto, en los de mi sangre, la decadencia del vascuence en los últimos años.

Nuestro abuelo Esteban Saralegui, Labrador de Leiza, en Navarra, sólo hablaba euskera; como tantos de su generación. Nunca olvidaré su noble cabeza vasca y la ternura viril que tenía —en sus labios— la lengua nativa.

Sus hijos —mi padre y mis tíos— son bilingües. Sus nietos, salvo los que siguen en el Leiza natal, hemos perdido —en un cuarto de siglo— una tradición lingüística de miles de años.


CAUSAS

El euskera, ha sido lengua anti- gua de labradores y marinos; es- casa —aunque profunda— de litera- tura y poesía.

Por otra parte, es difícil —por su diferente raíz— una coexistencia pacífica con los idiomas latinos. El valenciano, catalán, portugués, gallego... un castellano culto los en- tiende. Y al revés. Esto, con el vas- cuence, imposible.

Lo grave es que, desde mi niñez, nunca se ha enseñado vascuence en las escuelas públicas. Ni ha sido atendido debidamente por la Pre- nsa y la radio: desconocido por tele- visión.

Los movimientos separatistas (y sus «antis») politizaron el euskera. Ello ha sido quizá injusto y dañoso.



ELIZAREN

ITZA

PAZKO AROA

Xristo piztu zan, eta aurretik esan bezela irugarren egunean piztu ere Ostiral Santu atsaldean il, igande goizean berpiztu; gertakizun arrigarri au gure sinismenaren oiñ-arria da, garbi dio Paulo Santuak: «Xristo piztu ez balitz gure sinismena utsa litzake».

Galdu-orde aundiko egi bat erakusten digunean Berri-Onak, xeetasun guztiakin azaltzen digu, zalantzik edo dudarik gabe jaso dezagun, ala infernuko egi gogorra erakustean, berrogei ta amar aldiz goitik aipatzen digu Xristo berak, ala Eukaristiko egi zalla eta sakona azaltzen, lau Ebangelariak eta Paulo Santuak xehe- tasun guztiakin ekartzen digute eta berbera Kristoren piztuari buruz lau Ebangelariak, Bidalien egiñak, Paulo Apostoluak, eriotz agiria, il-obiko eorzketa, gero il-obiko utsa, Piztuaren agerketak Magdalenari, Kefari, Apostolueri Tomasik gabe, Tomasekin urre- na, «gero bosteun senide baño geiagori batera, oketatik asko bizi dira oraindik batzuk il ziran; gero Santiagori, gero Apostolu guz- tiei, denen ondarrean, xaxpiki bezela, neri ere agertu zakidan. I Cor. XVI 3-8». Pedrok amabigarrena Judasen ordeaz aukeratu bear zala, Eliz berriari esatean, izan onekoa eta Jesus piztu on- doan ikusitakotatik izan bear zala esan zien eta Matias berexi zuten, Xristo piztuaren lekuko edo testigu izan zedin. Apostolu guztiak gertaera arrigarri ura iltzerañon aitortu zuten, azkenean beren odolaz egiztazerañon. Auek irudipenak ez dira, asmakizu- nak gutxigo, egi borobillak, bai.

Ebangelioa, Jainkoaren itza bezela, sinismen biziz, artzen du- gunok, ziur ziur gaude Kristoren piztuera eta bere-onen ondorioz.

Xristo piztu zan, Jainkoa da beraz eta Bere itza, Jainkoaren itza; Bera piztu zan bezela, gu ere piztuko gaituela agindu zigun, bere piztuera bete zuen, gurea ere beteko du. Bera baita Bidea, Egia ta Piztuera.

PUERTO RICO - TIK

IZAN DITUGUN AUKERAKETAK

Iru gauz galdetu zaizkie, aurre ontan, Puerto Rico-n, aukerapide duten guzietan: a) Bakarrrik *berengain*, bizi nai duten, ala b) *Estados Unidos*-ekin bat eginda; ala c) Be- ren «fueroekin», askamen batzukin.

Eta azkeneko oyeak, «fuero» za- leak, askoz irabazi dute; bigarren,

Estados Unidos-ekin bat egitea nai dutenak zetortzen; azkendari, «be- regaintzaleak».

¿ZER DIRAN BEREKIN ZALEAK?

«Beregaintzaleak» auxe nai dute: Berak beren buru, «berengain» bizi emendik aurrera. Bañan, oyetatik askok, Estados Unidos-ekin adiski- dean, alkartasunean, bakoitzak be- re etxean agintzen duela, jarrai nai dute; ez, asarrean. Elkarri lagun- duz baizik. ¿Noraño? — Ori biok elkarrekin erabaki bear.

¿ZER DIRAN ESTADOS UNIDOS- EKIN BAT EGITEA NAI DUTENAK?

Oyek Estados Unidos-en, erabat sartu nai dute, betiko, *Alaska* eta *Haway*-ek egin duten bezela. Ordun, ori gertatzera, Puerto Rico ondatu- ko litzake. Eta, Puerto Rico-ren itz kuntza ere; *erdera* ere bai betiko. Denok *ingeles*-ez mintzo bearko genuke, ori gertatzen. Kalifornian be- zela, Nuevo Mexican bezela, Tex- as-en bezela, *erdera* osotara galdu arte. Eta, jakina, ori nai du Estados Unidos-ek.

ETA, ¿ZER DIRAN «FUEROZALEAK»?

Puerto Rico-k, orain ere, *autono- mia* apur bat badu, Naparroak be- zela. Naparroak baño geixago. Zen- bait gauzetan, berak bere legeak moldatu eta ematen ditu. «Fuero- zaleak» ontan jarrai nai dute, baño egunetik egunera askatasun geixa- gokin.

Orain-orain bezela, Puerto Rico-k, *zerga- etxeak* (aduanak) nai ditu ber- retzat. Baita berak bere *itsas ontzik* egin eta izan ere, emendik aurrera. Eta, an ta emen, on dakion tokian, bere *ordezkoak* (konsulek) jarri, *sa- leroeste* arazotarako.

Eta iru gauz oriek eta geigo ere, elkartasunean jarraitzen ba-du, iri- txiko ditu.

«Fuerozale» oriek «Partido Po- pular Democrático» dute izena. Be- re Burua, *Luis Muñoz Marín*. Eta, onen *jaiotetxea*, Leon-en, erri xar- pil batean, Espainan, omen dago.

Gizon zar xamarra da bera. Eta bizkorra. Ijitoa baño ernaigo, base- rritarrak *bere-ganatzeko*.

Aldi ontan, Espainan eta Euro- pan-dabil, ara ta onera.

Baño, laxter emen dugu. Datorren urtean, 1968-an, berriz ere *aukera- ketak* baitira Puerto Rico-n, beste lau urterako. Eta ura emen bear *ortarako*, irabaziko ba-dute.

Mikel Intxaurrondo, apeza. HUMACAO, Puerto Rico

“BIXTU DA KRISTO”

Uda-Berriyan
lorez jantzita
argitu digu Bazkuak.
«Bixtu da Kristo
illen artetik»
erran digu Aingeruak.
¡Au poza Elizan
kristau artian
aleluiaren kantuak!

Guregatikan
bixtu da Kristo;
gu danok bixtiagatik.
Egunen batian
altxako gera
ill eta gauden obitik.
¡Zenbat gizona
jeikiko diran
itsaso sakon barrundik!

Berriz bixtu-ta
Uda-Berriyan
zuriz apaiñ gereziyak.
Lore guztiya
sasitarano
zaizkigu zoragarriyak.
Zuazte neguko
izotz ta orma
egitan bildurgarriyak.

¡A, zer atsegiñ
ernatze ura,
Jaungoikuen maitatzalle!
Egiñ zinitun
erruki egintzak
ontasuna zabaltzalle.
Goratu zendun
Jaunen izena;
maite zendun, t'asko maite.

Bixtu da Kristo
Garaille aundiya
bere birtute ta indarrez.
Beregán zeukan
neurrik gabe
Jaunkoiko indartsua danez.
Gurtu dezagun
Mixerio aundiya
gure biotz t'adimenez.

Ta jai egunak
gorde zinitun
iñola zikindu gabe.
Etzendu izan
zure biotzian
lapur ontasunen gose.
Nere Aitaren
bedeinkatua,
jarri zaitte eskubi alde.

Kristo Nagusi,
Kristo Errege:
umill gaitezen apalez.
Beragaitian
egon bagera
arrokerin aundi ustez.
Guazen, kristaubak,
argira guazen
egon gabarik bildurrez.

Bazko eguna
ondra dezagun
gure sinismenarekin.
Garbi gaitzala
Bildots Santuak
bere Odol garbiyak,
gero zeruan
izan gaitezen
danok zorionsu elkarrekin.

JOAQUIN ALDAVE

«EZTAN ILEN ERRONKARI'N USKARA»

(Ene arreba Feli'ri)

Nafarra'ko
ipar-altean
Erronkari
Ibaxa,
mendi andi
lerren artean
daude zazpi
iriak.

Arri-pean
ardi ñoa,
ardi-altean
axuria,
irietan
etxe zarrak
etxe-barnean
erdara

“Ezta ilen
ezta ilen
Erronkari'n
uskara”.

Almadieroak
negu gorrian
xaitan dra
egoatxetik,
ardi, txakur
eta artzaiak

Bardean
bidetarik.

Ogei gizon
eta mazte
dra oraiko
uskaldunak,
uskaldun zar
xoanen geroz
¿non daude
berriak?

“Ezta ilen
ezta ilen
Erronkari'n
uskara”.

Gore uskara
iltan bada
zore izena
eztakizu,
zore etxe,
izenburia
ezta deus
zoretako.

Gore uskara
iltan dago
¡xoan fite
neskatoa!
matto bero.

matto andi
uskarari
emoitra.

“Ezta ilen
ezta ilen
Erronkari'n
uskara”.

José ESTORNES LASA.

Argibideak

Lerra: Piñua

Xaitan dra: Etortzen di-
ra.

«Egoatxetik»: Urbidetik,
Ibaitik.

Bardean bidetarik: Bar-
denan bidetatik.

Matto: Muxu.



EUSKAL ERRIKO KANTA ZARRAK

«Menditarra» izenorde onekin Billaba'n bizi den baztandar batek amabi bertso auek igorri dizkigu orrialde auetan argitaratzeko eskatuz. Ona emen zer erraten digun: «Aski gazte xamar nintzela ikasi nituen nere aitari eta oaiñik gure aitak naiz bortzgarren kintan goiti guaki denak zentzuan dauka, ta baita ere ongi kantatu. Ok dira bertsuak».

Ohar bat nai dugu azaldu aurretik. Bertso auek Donosti'ko INDALECIO BIZKARRONDO'K PARATUTAKOAK DIRA, eta Euskalerrri guzian oso ezagunak. 1831 urteko Apirillaren 30 egunean jaio zan, eta 45 urte zituelarik Donostian ere il zen 1876 urteko Uztailaren 22 egunean. Denek «BILINTX» izengoitiz edo izenordez ezagutzen zuten.

Gustora argitaratzen ditugu donostiar bertsolari eta poeta on onen omenez.

— 1 —

Loriak udan intza bezela
maite dut dama gazte bat
ari ainbeste nai diotanik
ezda munduan beste bat.
Iñoiz edo bein pasatzen badet
ikusit gabe aste bat
biotz guzira banatutzen zait
alako gauza triste bat.

— 2 —

Neskatxa gazte paregabia
Apirilleko arrosa,
izarra bezin disdizaria
txoria bezin airoa.
Oraintxen baño gusto geiago
nik ezin nezake goza
zorianian ikusten zaitut
nere biotzak au pozal!

— 3 —

Ez al dirazu antzik ematen
nik zaitutela naiago
ai mariñelak gau illunian
izarra baño geiago.
nere onduan zauzkatalako
pozez zoraturik nago,
zu ikustiak alegratu nau
triste nindagon lenago.

— 4 —

Nik ainbat iñork nai dizunikan
arren ez zazula uste,
nere begiak beren aurrian
beti desio zaituzte.
Eguzkirikan ikusi gabe
txoria egoten da triste
ni ere ez naiz alegratzen
zu ikustiaz ainbeste.

— 5 —

Aurpegi fiña gorputza berriz
ezdago zer esanikan,
izketan ere grazi ederra
ezer ezdezu txarrikan;
mundo guztiya miratuzera
zu bezalako damikan
agian izan liteke baño
ezdet sinesten oaiñikan.

— 6 —

Nere betiko pentsamendua
nere konsolagarria,
zu gabentanik ezin bizi naiz
esaten dizut egia;
zu baziñake arbola eta
ni baldin banintz txoria
nik zu ziñaken arbol artantxen
egingo nuke kabia.

— 7 —

Amoriuak nere biotza
zuregana darama,
erri guzian zeren daukazun
neskatx bikañaren fama.
Beste fortunik mundu onetan
ezdet desiatzen, dama
aur batek berak izan gaitzala
ni aita eta zu ama.

— 8 —

Falta dubenak logratutzeko
itz egitia txit on du,
eta nik ere saiatu biar

(Kanta oien berri eta xehetasun geiago norbaitek yakin nai baldin
bada ikusi: «Auspoa» Liburutegiaren 12 numeroa, «Indalezio Bizcarrondo
«Bilintx» - Bertso ta lan guziak» izena duen liburua).

ote gintezken konpondu.
Gaur nagon bezin atrebituba
sekulan eznaiz egondu
argatik golpez galdetzen dizut
nerekin nai zun ezkondu.

— 9 —

Ezkonduziak izan bear du
preziso gauza txarren bat
ala esaten ari zait beti
nere konsejatzalle bat.
Alaxen ere aren esanak
oro utzirik alde bat
ongi pozikan artuko nuke
zu bezelako andre bat.

— 10 —

Zedorrek ere ongi dakizu
aspaldi ontan nagola
zuregatikan penak sufritzen
bañan ordia au nola;
alaxen ere nigana ezin
bigundu zaitut iñola,
ni zuretzako argia naiz ta
zu neretzako marmola.

— 11 —

Nere biotza urtzen dijua
eta ezda misterio,
penaren kargak estutu eta
zumua kendutzen dio;
begiak dauzkat gau eta egun
egñikan bi erio
beti negarra dariotela
zu zeradela medio.

— 12 —

Zu zeralako merio baldin
juaten banaiz lur azpira
gero damua eta malkuak
alperriz izango dira;
beñ juan ezkerio oien birtutez
berriz ez niteke jira
ori gertatu baño lenago
izazu nitzaz kupira.

ETXE XAHARRA

Etxe xaharra, gure herrian,
Xuri-xuria pentze berdian,
Leiho gorriak hego aldian,
Miru-buztana haize beltzian,
Iduri zaku, arratsaldian,
Atso gaixo bat lo hiruzkian...

Harri batian, borta gainetik,
Deiturak ditu xixelaturik.
Izar, kurutze, lilien petik,
Irakurtzen da, lau mendez danik,
Bere lekian dagola xutik.
Nola sortu zen, ta zoin eskutik?

Ofiziale, mutil sehia,
Herrikoa zen kide guzia:
Enaut hargina, buruzagia,
Erramun, harri-pikatzailia,
Bai eta Xobat, mahaxtura...
Zer langiliak, Jinko maitial!

Mintza baladi behin etxola,
Erran lezake azkarra dela,
Aro gaixtoa berdin zakola,
Bainan ez dela borda bezala,
Eta laguntza behar lukela
Ez izaiteko beti su-hila.

Erran lezake nola, geroztik,
Seme gazte bat joan zen hortik,
Argentinat, denak utzirik.
Jinen ote da haberasturik?
Etxe gaixoa, iduriz hutsik,
Etziren egon xaharrak bezik.

Hango semia, urruntik jinez,
Etxe huts hartan, iluntze batez,

Ixil-ixila sartu zen brixtez.
Zoko guziak beltz atxemanetz,
Hil-herritarat laster eginez,
Otoitzian zen egon nigarez...

Urte berian, han zen ezkondu,
Andriarekin untza laketu,
Langilekilar lanari lotu,
Etxe xaharra dena berritu,
Bana lehengo gauzak apaindu.
Eskualdunki zuten artatu.

Etxian eder harri-alkiak,
Teilatu zabal, murru handiak,
Atean aldiz, itze lodiak...
Oraiko Kaskoim tegi berriak,
Haren ondoan ttipi-ttipiak,
Zer ote dira? Oilotegiak!...

Badu segurki mainatokia,
Ura nun-nahi, garbi-garbia.
Utzi dakote pegartegia,
Ta sutegian, zizel lekia.
Beraz, zer etxe maitagarria!
Ohoratzen du gure herria.

Jende horiek, behar lukete
Bizi goxoki ta anitz urte,
Zeren bihotzez maitatu dute
Aiten etxia, zinez nik uste.
Hilen nahia segi bezate,
Lur petik ere manatzen dute!...

Piarres HEGUITOA

(Naparroko Seigarren Merindade-
ko. DONIBANE GARAZITIK, 1965'
ko Jorraillak 18).



XENPELAR SARIA

Bertsu paper oberenen sariketa.
Lenbizikoa: BI MILLA PESETA,
Matxain, Ayetekoari.

Bigarrena: MILLA BOSTEUN
pesetako, Lete, Isasondokoari.

Irugarrena: MILLA PESETA,
Errazkin'go Orejari.

Laugarrena: BOSTEUN peseta,
Tolosa'ko Albizuri.

Orejaren irugarren saria ez dago
gaizki. Gain gaineko bertsularia
agertzen dakigu. Bere bertsu sari-
tuak «EMAKUMIEN MODA BE-
RRIKO JAZKERARI» emanak. 12
bertsuko sorta. Diotenez, ezin da
egokiagorik egin gai ortaz. Igazko
Otsailleko 12 numeroan bertsu ok
argitaratu genitun.



LESACA, NERE ERRIA

Endalxako (Enderlazako) zubia pasatu ta, ia Naparroko lurretan, Bera, lenbiziko erria atzera utzirik, arkituko dezu bidegurutzetako bat. Artzazu eskuñera. Auniz bihurtu bearko bide miartso batek, eramanez dizu, okerrik gabe, eritso batera. Sarturik, erraziazu Lesaken zaudela:

Mendien artean betua, zugaitzez (arbolez) inguratua dagon erreka polit baten bi aldetik, etxe-txuri mordoskada, bat bertzien ondotik, bear den bezela, sallan. Banatuak daudezin etxe berriak, gaintzen dituzte berzeak, edertasun ta gaitzez (alturez). Elkarren artean nasi ta saretzen diren kale estu ta oker batzuek...

Emakumeak, leiotik leiora, izketan, eben-ganeko euskal zall baten. Gazte bakan batzuek ere, izketan —ok erderaz—, dagozi, plaza inguruan. Gizonak lanera badijoaz; edo etxera, ituliz. IXILTASUNIK EZDAGO, baño, bai, LASAITASUNA.

Ze lanetan lotzen dira lesakarrak?, galdetuko dirazue.

Orain-dela urte batzuek arte, nekazari edo lur-lanak ziran emengo egin-bear guztiak. Ez gutxi, banatzen ziran eririk or barna, lan naigarri bat billatu naizik. Ondoren, fabrika galanta bat sartu zan, ta beartasun au ordaindu zuan: Gazteak eta gizonak bazaukaten, onela, eguneroko lanteki edo lan lekua. Ta, gauz berako, etorri zan, pillaka, kanpoko yendea.

Ykusten duzuen bezelaxe, Lesaka aintzindutzen yoan ta doaye. Aitortu bear degu, baizik, ala ere, naiko gibelatuak gaudezela, gauz batzuetan, beintzat:

Lesakarrak badaukagu gauz-zarrak zaitutzeko joera bat; ta zdiogun berritasuneri leku egiten. Ez-yakintasunak oraindik zoko aunitz dauzka, geren artean; aurtan arte ikastetxe edo eskol erdikak iduki ditugulako edo... Benetan, egia au da: Lesakak aspaldiko pentsatzeko modua daukala; ez egokia, benetan, gaurko.

Erranen dezue, ikasitza ezdala dana. Siñestu, baizik, kulturaren lenengo mallek gabe, ezin dela ta ezin gerala berriztu. Lesakako gaztediak, bertze gaztedien adiñ, ezdago geldi, aintziñekoak utzi zigutenakin. Eskatzen dute, esku-bide osoakin, ulertasuna, eben eskaerantzako. Ezin dizute ukatu, orain arte bezela!!

Olaxe dago, ba, Lesaka, aunitzen seaska ta eriotz-leku.

Emen yayo nintzan, ni ere, ta emen ikasi nituan, gurasoak irakutsi ta, gaur zaitu naizik dabilten, euskararen lenengo itzak.

Anton ERKIZIA

Atavesando el puente de Enderlaza, en tierras navarras ya, dejando atrás Vera, el primer pueblo, encontrarás un cruce de carreteras. Toma a la derecha. Un camino estrecho y curvo te conducirá, sin equívocos, a un pequeño pueblo. Entra y dime que estás en Lesaca:

Hundido entre montañas, a ambos lados de un pintoresco río, bordeado de árboles, un grupo muy unido de blancas o pardas casas típicas, geométricamente alineadas. En las afueras, unas nuevas casas que desuellan y sobresalen de las otras, ya por su elegancia o por su altura. Angostas y curvas calles que se entrecruzan y se enredan...

De ventana a ventana charlan las mujeres en un vasco muy propio y duro de entender. También algunos jóvenes charlan —estos en castellano— por los alrededores de la plaza. Los hombres se apresuran al trabajo; o regresan a sus casas. NO HAY SILENCIO, pero, sí, TRANQUILIDAD.

¿A qué se dedica la gente en Lesaca?, me preguntaréis.

Hasta hace algunos años, el campo era el único medio de trabajo. No pocos emigraban del pueblo, buscando un puesto más aceptable. Hasta que una importante fábrica suplió esta necesidad. Jóvenes y mayores encontraron así, un puesto diario de trabajo. Y con el mismo fin, llegaron montones de gente forastera.

Como veis, Lesaca ha ido y va progresando. Pero debemos de reconocer que, aún y todo, está bastante atrasada, al menos en ciertos aspectos: los lesakarras tenemos un espíritu conservador. Nos apegamos en demasía a las viejas costumbres y no hacemos lugar a lo nuevo, a lo que ahora debería de existir. La incultura ocupa mucho espacio entre nosotros. Sea debido, tal vez, a la mediocridad de las anteriores escuelas. La verdad es que Lesaca tiene una mentalidad vieja: una manera de pensar no muy adecuada para los tiempos actuales.

Direis que el estudio no hace todo; pero, creed que sin una básica cultura un pueblo no puede resucitar, que estará siempre dormido. La juventud de Lesaca, al igual que las demás juventudes, no se conforma con lo que nos dejaron. Necesita, con razón, la comprensión a sus nuevas exigencias. No podéis negarla, como hasta ahora!!

Así es Lesaca, mi pueblo. Para muchos cuna y sepultura.

Aquí nací yo; y aquí aprendí, enseñado por los padres, las primeras palabras del vascuence que hoy trato de defender.

inguruko laborarien (nekazarien) abantaila.

Segur, indutziako gauzetan zerbait ukaiten ahal dugu, baina ez uste ukan lodi izanen dela gure Euskal Erriarendako. Españolen aduanako dretxoak ezdira guti baizik apalduko guk harat igortzen ahal ditugun gauzendako: Ala nola zapata edo plaztika gauzendako. Gure dretxoak aldiz akabo izanen dira emendik sei edo zortzi urte barne, eta kasu orduan Espainiatik jinen (etorriko) diren oski (zapatu), manta (oial) eta olakoeri.

Asi gira Parisen, GETIS deitu batasunean, ikusi nahiez zer egin ditaken eta nola obeki prepara (presta) ditaken Eskual Erria, Merkatu Komunean Espainiaren sartzeari buruz.

IKASI, MIKASI...

BBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBBB

Naparroan, ¿"urteko txekorrak"?

—¿Zu, ere, onera, Joshe Migel?
—Bai, jaune; Pazkoa gañen baita, ta...
—Orduan, ¿konfesatzea zatot?
—Ez, ez; datorren astin fraile'at etorriko omen da, ta arrekin confesatu naiz. Ni, urtean bein, baño beñiere ezdet utzi konfesatzea...
—Enun uste zu «urteko txekorra» ziñenik...
—¿Zabarkeriz bestetik ez da! Beorrek badaki, gue adiñetan ze pekatuk izaten thuan: berdekerion bat tabernako sesiotan, ta arraion bat gue lane-tan. Ala ere, jerraxago izango litzeke bakotxek Jainkoai bakarrik bee pekatuk konfesatzea.
—Ola egiten omen dute moruak: lurrean zulo bat egin, makurtuta zulo-lora pekatuk esan, ta zuloa estali...
—¿Mesede edarra eingo giñieke Eliz Ama Santak, guetzat ee konfesioa ola jarri izan balu!
—Eliz Ama Santak etzigin jarri konfesioa.
—¿Nok, baa?
—Jesukristok, Jainko ta gizon egiazkoak.
—¿Egii da oi? Zergati, ortaz ee gauze'atzuk aithu thot...
—Esan, ze aditu konfesiota makur makurrena.
—Makurrena eo txuxenena, askok miñepin diote, apezak eta frailik jarri zutela konfesioa, errietako kontu guzik jakiteko.
—¿Bai alditeke jakin apez edo fraile orren izena?
—Amiste, ezin nioke esan.
—¿Ainbeste ezin dizute egiztatu ta ez dizute egiztatuko ere, gezur-aundi bat besterik ez baita!

—Ordu, Jesukristo jaió baño len, ¿nola barkatzen zeen pekatuk?
—Kontun iduki bear dezu, Joshe Migel, legegilleak jartzen dituela legeak. Gañera, Jesukristok etzigin jarri BIOTZEKO DAMUTASUNA, pekatuen barkazioa iristeko bear-bearrezkoa. Bakarrik, modu berri bat erantsi zion, beti bearrezkoa izandu den obligazio orreri. Orregatik diogu konfesioai DAMU SAKRAMENTUA. Ezkontza, ere, izandu zen Jesukristo jaió baño lenagotik, bestela zu ta ni ez giñen emen egongo. Baño, orduetik onera, ez da naiko gizona ta emakumea elkartzea, baizik, bear da, kristautentzat beñepin, SAKRAMENTU onen legez senar-emaztetaz elkartzea.

—Ezkontza, ez det deus esan bearrik. Ongi dao, daon bezala. Baño, konfesioa kondizio goor xamarra jarri ziun...

—Ezin diteke ukatu, neke piske bat baduela aitortzak, baño, baita ere, lasai aldi aundia artzen degula barnegoa pozoia botatzen degunean. Medikasko askok diotenez, gaxotasun batzuentzat, konfesioa izango litzake sendakai obereña. Gure gorputzen gaitzek sendatu balitezke mediku bateri erakutsita bakarrik, ¿ezgiñuke neke au pozik artuko?

—Arrazoi do, jaune.
—Gañera, konfesatzeko obligazioik ezbagiñu, ¿uste dezu ezgiñekela sueltotxeo ibilliko?

—Baita'ee; egii da beorrek diona.
—¿Besterik nai duzu jakin?
—Nai nuke jakin, argi eta garbi, noiz eta nola jarri ziun Jesukristok konfesatzeko obligazioa.

—Ara, emen, Ebanjelio Santuak zer diagan: «ARRATSALDE BEREAN, IKASLEAK BILDURIK ZEUDELA, JESUS, ETORRITA ERDIAN JARRI ZITZAIEN, TA «PAKEA ZUERI», ESAN ZIEN. AU ESATEAN, ESKUAK ETA SAIETSA ERAKUSI ZIZKIEN. POZTU ZIRAN IKASLEAK JAUNA IKUSITA. «PAKEA ZUEI», ESAN ZIEN BERRIRO. «AITAK BIALDU NAUN BEZELA BIALTZEN ZAITUET NIK ERE». ONDOREN, ARNAS EGIN ZIEN GAÑEAN, TA AU ESAN ZIEN: «AR ZAZUTE ISPIRITU SANTUA. PEKATUAK BARKATZEN DIZKIEZUTENAI, BARKATUKO ZAIKIE; ETA LOTURIK UZTEN DIZKIEZUTENAI, LOTURIK GELDITUKO ZAIKIE.» (S. Juan, XX, 19-23).

—Itz oitan ezta aipatzen konfesiok.
—Ez da aipatzen, baño agirin dago. Bestela, ¿nola jakingo zuten Apostoluak, eta apostoluak bezala sazerdote guztiak, ze pekatuk barkatu, konfesatzen ezbazazkien? Argiango nai baduzu ikusi, ara Santiago Apostolua zer dion bere Eskutiztan: «AITORTU ZAIKIOZUTE, BADA, ALKARRI ZUEN UTSEGIÑAK, ETA EGIZUTE OTOITZ ALKARREN ALDE, SALBA ZAITEZTEN.» (Sant. V, 16).

Apostoluen ondoan, Elizeko Gurasoak, mintzo dire konfesiok. Bigarren mendean bizitu zen San Ireneok, dio: «KONFESIOA BEARREZKOA DA GRAZIA BERRIZ IRISTEKO.» (Ire. Adv. heres. 1-13). Ta San Ziprianok, bere aldetik diagu: «KONFESIOKO SAKRAMENTUN BEAR DIEGU AZALDU SAZERDOTEAI, EZ BAKARRIK AGIRIN DIREN PEKATUK, BAITA IZKUTUENAK ERE.» (Zipriano. De lapsis. c. 28-29). Bestela, ¿nola uste dezu Eliz Ama Santak olako obligazioa jarriko zuela, Jesukristo Berak jarri ez bazigun?

—Konfesio au, ¿egiazkoa izan bearko do?
—¿Jakiñe! Bear da KONFESIO ONA egitea. Ortarako, Kristau Ikasbi-deak dion bezala:

- Lendabizi, jakin bear degu ze pekatu egin ditugun, mandamentutaz esaminatuz.
- Gero, bear da BIOTZEKO DAMUTASUNA: gaizki egiñaz min izatea, ta egin bearra utziaz damutzea.
- Egiz damututa dagonak, izango du, ere, geiango utsik ez egiteko ASMO SENDOA.
- Bere pekatuen barkazioa bille doaienak, ez dio Jainkoan ordezkoari ezker izkututuko, edo errebeska esan.
- Azkenikan, penitencia bete bear da lenbailen eta zintzo. Aitortzak, berez, ori eskatzen du, balio izateko.

—Oi, dena, azaltzen digu, noizpin bein, gure apezak. Baño, gaztarooan ikazkiñ ibilli giñenak, baldar xamarak izango gera beti...

—Borondate ona izan ezker, ez. Zuk aditu, dakitenai; ta ez kasorik egin ago-aundi ta berritxuei.

—Asi bearko duu noizpait...
—Joshe Migel, ¿zu beste, «urteko txekorrak» bada zure errian?

—Izango dee, bai, lau eo bost...
—Ia, bada, maizexago konfesatzen zeran. Len esan dizut, konfesioa DAMUZKO SAKRAMENTUA dela. Obego esan genezake; MISERIKORDIAZKO SAKRAMENTUA dela.

¿Zeinbat eta zeinbat egongo dire zerun, konfesioai eskerrak. Beste ainbeste esan genezakegu BIOTZEKO DAMUTASUNEZ. Badakizu, Ato Kontrizioskoak pekatue barkatzen duela bat-batean, naiz gero (al izan ezker), konfesatzeko obligazioa izan.

A. ASTIZ ARREGI

ZER ABANTAIL LUKE ESKUAL ERRIAK, ESPAINIA MERKATU KOMUNEAN SAR BALEDI?

Ukan ditugu orai artino artikulua mamitsuak Europaz, Angleterraz edo Federalismoaz. Baina bada gauza bat usu aipatzen ez duguna: Espainia Merkatu Komunean sartzeko zer abantail ekarriko dion Euskal Erriari. Segur entzuten ditugu ele batzu nihork klartzen ez dituenak: Hala nola «Axe Bayonne-Bilbao» (Eje Bayona-Bilbao, erderaz), edo «Baiona, Nafarroaren borta (atea)».

Gure ustez ele oriek faltsuak dira. Segur Espainiaren eta Bruselesko jenden artean solasaldiak badaozi aintzina, ete emendik bi urte barne akordio zenbait ukanen dugu. Baina zer izanen da paper hortan guretak?

Laborantzako (nekalzagoko) gauzendako guti, ez erraiteko deusik.

Orai bezela gure artoa igorriko dugu, baina ez gehiago. Arto hori merke saltzen dugu, 20 libera berri (franko berri) zakua, Amerikanoek prezio (salneurri) hortan saltzen ahal baitute; Españolek berek nahi dute orai artio arto gehiago egin eta gutiago erosi.

Aragirik batere ezdugu orai artino saltzen, eta orrek iraunen du: Españolek nahi dute beren aragia erosi Argentinatik jiten (etortzen) den aragiaren prezioan, orrek erran nahi baitu bi libera berri (franko berri) kiloa. Ber-bera gauza esnearendako.

Aatik Españolek nahi daukute saldu fruitu, baratzekari eta holako, hori ez baita Donibane Loizune (San Juan de Luz erderaz), edo Baiona

inguruko laborarien (nekazarien) abantaila.

Segur, indutziako gauzetan zerbait ukaiten ahal dugu, baina ez uste ukan lodi izanen dela gure Euskal Erriarendako. Españolen aduanako dretxoak ezdira guti baizik apalduko guk harat igortzen ahal ditugun gauzendako: Ala nola zapata edo plaztika gauzendako. Gure dretxoak aldiz akabo izanen dira emendik sei edo zortzi urte barne, eta kasu orduan Espainiatik jinen (etorriko) diren oski (zapatu), manta (oial) eta olakoeri.

Asi gira Parisen, GETIS deitu batasunean, ikusi nahiez zer egin ditaken eta nola obeki prepara (presta) ditaken Eskual Erria, Merkatu Komunean Espainiaren sartzeari buruz.

Ez da aski ele eder zorbait ateratzea, behar da ere biaramunaz oroituz.

Balin bada «Herria»-ren irakurletan gauza orietaz zerbait dakiarik, izkiria dezala (izkiriba, idatzi) zer pentsatzen duen. Galde ori ezdegu bakarrik unaidiko Euskaldunei egiten, Bizkaitar, Gipuzkoar, eta Nafar-tarrek ere badute segur beren ideia, ez izanik ere gurea bezalakoa.

Badakigu Bilbaoko nagusiek ez dutela nahi akordi bat izan dadin

Espainia eta Merkatu Komunaren artean.

Eia, denek gauza bera pentsatzen dutenez?

J. P. LAFAURIE
(Bayona'ko «Herria» euskal Astekaritik artua).

Oharra: Iñork nai baldin badu errespuesta edo erantzuna igorri bere burutzapen, gogo eta esanaia agertuz izkiriba beza zuzenbide oke-tara: «Herria», 11, rue Jacques Lafite - Bayona (Francia).

ERRIZ-ERRI



SALDIAS



BAZTAN

EGUALDI OTZAK

Orain arte, beñepein, Martxoan oso azkarra doaie. Garizuma-aizeak ezdio ñorri txandarik uzten. Oso mutur txarra erakusten du asko goizetan. Orrengatik kanpoa atzera xamar dago. Saratsa bakarrik ikusten da loretan. Gañerako arbolak oraindik burutsik daude, naiz aranak eta gereziki loratzen ayerrik egon.

ARDIAK ERDITZEN

Aspaldixkoan ardiak erditzen asiak dira. Nunnai ikusten dira biltozak ardiaren atzetik. Baño gutxi xamar ikusten dira sorotan naiko esne amari edanta jostaketan. Eguzkia gerizi xamar ibilki eta denborak batere ez laguntzen. Beste aldera dirun poliki egiten omen du, kiloko ogeita bi duro.

KISUA

Gure nekazariak ongi dakite lurrak kisuaren bear aundia izaten duela. Orrengatik kisua erostera saiatu dira alorreri emateko. Baño salgai ekartzen duten kisuak ez omen da emen lenago egiten zan kisuaren antzarik ere. Agudoxko da ola mintzatzeko. Ikusiz joan bearko dugu. A'orreri egiten dion ontasuna ikustean, zerbait esan leike. Bitartean ikusiz joan bear.

GRIPE

Aurten, suertez, bisusta. Eta bisusta urteak beti ematen ditu bere ostikoak. Aurtengo ostikorik makurrena «gripe» izan da. Egun batean, zoritxarrez azaldu zen gure errian. Geroztik emen dabill borrokaka. Ia balitzake ordua guri pakean utzitzeko. Noiznai ordua da. Erriko umeak ia denak pasatu dute. Orrengatik amabost egunez eskola itxia egon da. Don Gregorio or ibilli da, laster onara, laste ara, deneri zerbait egin naiez. Egitan ongi arztekoa da berak jartzen duen borondate ona.

ARTZAINAK

Yoan den Otsaillaren 3'ean San Blas egunez, Elizondoko Baztango Balleko Etxean, Baztan ta Malda Errekako Artzainek bilgura aundi bat izan dute. An bildu ziren Baztango Aintzindariak Alkate Yauna buru zutela, Xabier Urmeneta Diputadu Yauna, Diputazioko Zenbait albaiteko ta bei-gazna egile zeinbatzuk ere.

Lenbizi Agintari yaunak mintzatu ziren eta danekin solasaldi bat egin ta ondoan erabakiak artu zituzten. Gazna fabrika edo gaznategi bat berealaxe egin beharra dute la Elizondon eta ardi esnea amasei pezeta litroa ordainduko dutela.

Iduri da artzainak konforme direla eta agintariak ere pozik artu dituztela artzainen eskariak.

Baztango Alkateak eta Urmeneta Diputaduak garbi erran zuten eken aldetik zauden laguntza guziak izanen zituztela ezinbehar ori aintzinat eramateko alik laisterren bere fruituak sortu eta ikusi artio.

Asmo on horiek gerta daitzila eta laster ikusi dezagula Elizondoko Gaznategi berria, eta pixkanaka pixkanaka «Baztango Gasna» bertz «Erronkal», «Urbasa», edo «Manchego» pareko eginen delako ustean gelditzen gara, eta gure artzainek litro esne aunitz ateratzeko bidea izan dezatela, bio-biotzez desiratzen dabegu.

Goan den Martxoaren 30'ean larunbatez, Elizondo'ko «Salon Parroquial» deitutako lekuan, Baztan-Bidaso'ko nekazarien biltzar aundi bat egin dute, gure eskualdeko nekazalgoari buruz itzaldi yakingarriak egin dituztela.

Balleko Etxeko Alkate yaunak denei ongi etorria emanez, bilgurari asiera eman zitzaion. Izlarrien artean or gintuen, Troncoso eta Poyo yaunak biek Naparroa'ko nekazari kontuko Aintzindari eta gai oietan aunitz dakitenak. Denak dabilta nekazaritza aurrerapen bidean yari naiez, azienda obeagotu ta errokatu dadien eta nekazariak ain barrearkoa duen irabazbidea erdietsi dezan. Bilgura untan erakutsi dituzte Españiko aragien goraberak, zenbat bei eta zenbat aratxe azten diren eta erresumak zenbat aragi bear luken gauzak ongi moldatzenkotan. Prezio eta diru kontuetan ere mintzatu ziren, zer gertatzen den erranez eta zer egin bearko litzakenekazariak beren probetxua ateratzekotan. Arto «hibrido» aren gain ere aunitz mintzatu ziren eta zioten arto orrek aunitz emanen lukela Baztan-en eta bear litzakela aunitzez geiago erein, arto ona eta probetxu aundikoa delakotz. Ortarako nekazariak izanen omen dute laguntza eta bear duten adine azi ere bai «Mutualidad Agraria» delako batasun ortaz ere aunitz mintzatu ziren, seguroak, zar-partek eta gauz ok dakartzkiten diru-kontuak, pagamentak eta bertze gañerakoak aipatu zituztelarik.

Mintzatu ziren yaunek, beren arrazoñak eman zituzten gaurko aferak nola diren agertuaz. Parrokiko Sala bete bete yendez, or baziren baztandar nekazariak eta bai Malda-Errekakoak ere. Itzaldi yakingarriak izan dire bai baño egia erran nekazari yendea ez omen dago batre kontent zeren kontribuzioa aunitzez geiago ordaindu bearra baitute, oraingoan 94 % geiago eta ortaz landara artzen duten laguntza utsa baita. Orrela gauzak gaizki doazi eta nekazariak badute arrankure, pagatu bearrak eta gastuak gero ta aundiagoak eta irabazbideak berriz aski murriz; gisa untan nekazariak ezta bururik goratzen ahal. Ikusiko dugu bilgura ortan erran direnak zer ondorio dakarraten eta azkenean zer gertatzen den; beti ere nekazariak suerte on bat izan dezatela eta beren aferak bide onetik gan daitzile.



“TURISMO, LIBURUTEGI ETA ERRI-YAKINTZA” ZUZENDARITZAREN LIBURUXKA YAKINGARRIAK

Gure Euskal «PRINCIPE DE VIANA» Errebista maite onen amairugarren numeroan zabaldu genitun Diputazioren «Turismo, Liburutegi eta Erri-Yakintza» Zuzendaritzak («Dirección de Turismo, Bibliotecas y Cultura Popular» erderaz) sei agerkari edo liburuxka argitaratu berriak zituela. Gure aipamenaren bukaeran esan gendun au: «esperoan gaude argitaratzekotan dauden beste liburutxoei». Ona emen bada bitarte ontan argitaratu dituenak:

Gure Errialde, edo Erri baten berriak ematen dituenetakoak sei izan dira: **Baztango Ballea, Bidasoko Errekaldea** (Bidasoko Bortziri), **Iruña, Biana, Orreaga** (emen Seigarren Merindadearen Donibane Garazitik asi Auritz, edo Burgeterañoko dauden erriak aipatzen dira), **Tafalla** (emen Artajona, Uxue, San Martin de Unx errietako berriak ere ematen dira).

Beste klasteko agerkariak asia da argitaratzen. Klase ontako liburutxoetan Napar-oiturak (kostunbreak), Besta famatuena, aintzinetako kontu zaharrak, gure Historiaren auziak, eta beste asko gaiak agertzen dira. Amar dira oraingo argitaratu dituenak: **Xabierko Frantzisko Saindua, Sanpermiñak, Iruñeko Giganteak, Sorginkeria, Musika, Pirineoren Turismoko Bidea, Naparrako «Jota», Gure Fuereen Historia, Erribera eta Gayarre.**

Emen aipatu ditugun lanetatik sei agertzen dira fotoetan. Zuzendaritza onen Zuzendari dan Jaime Del Burgo yaunari gure txaloak lan eder onengatik biotzez.



IZETA

BAZTANDARRAK XABIER'EN

¡Xabier! Izen aundi. Izen ospetsu. Izen saindu... Xabier aipatzen degunean, etxekotar batez mintzo gera. Biotzez poztan ta alaitzen gera. ¡O, Xabier, baztandar! O, Xabier, napartar! O, Xabier, euskaldun! O, Xabier, saindu!

Euskal lurretan jaiio zitekean gizonik ospetsuena, Xabier'tar Frantzisko dugu. Benetako gizon jakintsu ta saindu. Izen ta ots aundiko «Juan de Jasso ta Maria Azpilkueta» guratso aberatsen semea.

Juan de Jasso, Frantzisko'ren aita, naparroko erregearen kontsejulari zan. Ama berriz, Baztan'go Azpilkueta errikoa. ¡Zorionekoak, Azpilkuetarrak!

Milla bost eun ta seigarren urtean jaioko zan Frantzisko, Xabier'ko gazteluan. Berrogei ta amabost urte gerora, il zan Goa'an, Sanzian izeneko ugartetxo batean.

Gazte denboran, aundikian seme bezela, guratsoek erabaki zuten—milla bostean ta ogei ta bostgarrenean— Paris'ko Ikastetxe Nagusira eramatea bere ikastaroak egin zitzan. Xabier'en asmoak «aundia» izatekoak ziran. Zezaken diruz eta geiago buruz... Ikasketan asko saiatzen zan, bañan, bere arimako gauzetan etzuen ajola aundirik jartzen. Arriku aundien tartean bizi zan.

Milla bostean ta ogei ta bederatzigarren urtean, Ikastetxe berera joan zan Loiola'ko Iñazio. Biak adixkide egin ziran. Egun batez, Iñaziok, Xabier aundikerian ta arro xamar pentsatzen zuela oarturik, esan zion: «Xabier, zertarako dezu munduan aberatsa izatea... jakintsua izatea... mundu guziaren jabe izatea, zure arima galtzen ba-dezu?». Lenegoz, Xabier'ek irri egiten zion itz auetaz. Munduaren aunditasuntan besterik etzuen pentsatzen. Bañan, Loiola'ko Iñazio'ren itz aiek, egunean baño egunean zorrotzago sartzen zitzaizkion biotzean. Eta,

bere baitan zion: «Ba-ote da mundu ontako aunditasuna jarraitzea baño gauz aundiagorik?».

Burutapen aundiak sortu zitzaizkion eta «arrokeriak» alde batera utzirik, artu zuen apaizgoko bizitza (Jesus'en Lagundikoa) eta joan Indietara mixiolari. Lurralde aietan millaka ta milloika kristautu ondoren ta oso makalduta arkitzen zelarik, Xabier'ek ezagutu zuen eriotza urbil zeukala. Sukar gaizto batek indar-galduta utzi zuen. Biotza bakarrik zeukan bero ta maitekor. Milla bostean ta berrogei ta amabostgarren abenduaren bian itzik gabe gelditu zan. An zegoen eriotza. Urrengo goizeko argi-piztueran zerrura egatu zan. Xabier'ek kristaututako mutil gazte bat, Antonio izenekoa ta txinatarra jatorriz, au bakarrik omen zegoen santuaren ondolan. «Aita gurea zeruetan zaudena...» euskeraz errezatuz omen ziran Xabier'en azken oitotzak.

Abenduaren irugarrenean zelebratzen dugu naparroko Xabier'tar Frantziskoren jai aundia. Bañan, beraganako «eskerrezko bederatzi-urrena» egiten da urtero martxoaren lau'tik amabi'ra. Aurten, Baztandarren txanda, illabetearen amabian izan da.

Autobus talde ederrak atera ziran Baztan'dik Xabier'era. Egun orretan ikusgarriko elizkizun berezi bat izan zuten Baztandarrek: euskerazko meza kontzelebratua, amabi apaiz-erretor baztandar, Larrañaga Gotzaia (Obispoa) buru zutela «elkar-mezan». Arizkun'go Erretor dan don Jose Plaza jaunak, Baztan'go Artziprestea danak, euskerazko itzaldi bikain baten bidez, goraldtu zituen erromesak eta Xabier.

¡Gora dezagun guztiok Frantzisko Xabier Deuna Jaungoikoarentzat milla erri irabazi zuena...

GORTARI TA UGARTE'TAR YON



ETXARRI ARANAZ

EUSKERA AZKENEKO ATSETAN?

Nik ez dakit zer esan. Arrazoi aundiya dute gure Diputazioko buru batzuek guri kontu artu bearra gauz ontan. eta gure ximplekeriatatik aurrera atera naia. Guraso denen utzitasuna da, ume txiki txikienetatik asiata jabetu dira etxean eta. Gurasoak erderaz ikas bearra daukie umeak ez euskeraz ikasteko. Auxe da gaurko fameli gazte geienak egiten dutena.

Batzuk diotena da euskaldunak erderazkoak baño atzerago gelditzen diela eskolan. Nun ikusi da! Ez dire gurtzen jakiteak ez duela ogirik jaten eta asieran ez bada alegiña egiten, ondorean aien aurraz ez erderaz eta ez euskeraz ez dutela jakingo.

Beste batzuk, berriz, aurretatik monjatan asi direlako galdu izan dutela. Besteren bizkarraren gain botatzea errezago baita; eta guk ez alegiñik egin...

Gezurre dirudi beste batzuk ez dutela ikusten politikarekin ikustekorik ezuela, gure gurasoak ainbeste milla urtetan au izan balute bezela.

Asi bear giñeke bada traba guziak utzi ta gure etxetan izketa beriritzen, gu gazteak giñenien bezela. Asko ikas ditek zarretan eta gartetan. Gazteak ikasiko luke leitzen eta eskribitzen; eta guk laguntzen. Ala aunditu dezagun Naparroaren izen eder eta jatorra. Gu gera munduko euskaldunik oberenenak. Jaso dezagun gure inbidagarriko eta azkeneko atsetan dagon izkera au.

GURASO BATEK



BAZTANDAR NEKAZARI ADISKIDEARI

Zure etxean sartzen gera zure seaskan sortu zen mintzairak elkartzen gaituelakotz. Konfiantza osoarekin eta adiskide gisa artu gaitzazu, emen eldu gera liburu ttipi unek erratan duena agertzera.

1'go.—Aurtengo Azienden Sariketnan agertuko dire Baztan'en ditugun aziendak oberenak.

2'gn.—Aziendak inportantzi aundia du, irabazbidearen iturburua eta bai aurrerapen ta yendearen ongi izatea.

3'gn.—Uste dugu konbeni litzakela aratxe geiago aztea, baño ez beren amaren esnearekin, baizik orren ordez, esnea egiteko pentsu espresa emanez. Gisa untan merkeago izanen litzake eta ola etzintuteke bei geiago erosi bearrak, ok aunitz kostatzen baitire eta ortaz landara zure beiteian eritasunik eta gaitzik elirazke sartuko.

4'gn.—Aintzinetako, beti bei klase onekoak utzi eta ez arraza nasietatik.

5'gn.—Baztan'ko nekazarien etorkizuna ta esperantza aziendan dago, aratze onak azi, gero aunditzean eta bei egiten direnean saltzeko.

6'gn.—Eta artaldeak obeki zaindu bear lirazke ardiek ongi mantenduz. Emengo ardi klasea zalla da bai baño ez ordea erdi goseak idukitzeko. Ardiek ongi mantentzen baidituzu emanen dazute bai probetxua, ardiek aunitz ematen baitute.

7'gn.—Baztan'go artalde oberenak bear luteke arraza eta klasea zaindu, ari ta ardi oberenak «Libro Genealogico» deitzen den liburuan sartuz klase txarragoekin nasi gabe. Ultzama ta Anue aldean molde berri au artu dute. Eldu den urtean erakutsiko dazkizeugu alderdi artako ari oberenak, ardi esnedun eta klase onen umiak.

8'gn.—Uste dugu aintzinerako uzten diren bildotsek aski lutekela egunean bein bakarrik bere amaren esnea artzea. Gisa ortan ardiek deitzen (yeitzen) ahal dituzu egunean bein. Olaxe egiten dute leku aintzinetuetan.

9'gn.—Ongi iduritzen zaiku Baztan alde ortan sartu dituzuen «York» deitutako zerri klasea, gaurko egunean zerrietan oberena.

10'gn.—Baztandar nekazariak segi dezatela orai bezela zerrikumeak azten eta saltzen. Nai ginuke Baztan'go Ballean azten diren zerri onak: «Libro Genealogico» delako ortan sar daitzin eta gisa ortan arraza edo klasea obeagotu dadien.

Norbaitek nai baluke «York» klaseko zerri arkelak gan dadiela «Dirección de Agricultura y Ganadería» deitzen den etxera eta an lagunduko diote bear duena emanez.

11'gn.—Elizondo'ko egin beharra den «Azienda Sariketa» ortan nai ginuzke ikusi Baztan'go eskualdean azten dituzuen «York» klaseko zerri arkelak. Nai baduzue, ori posible izanen da.

Naparro'ko Diputazioren «Nekazalgo eta Abelazkuntza» Zuzendaritzak. (Dirección de Agricultura y Ganadería, erderaz deitzen dena)



Baztandar yaun agurgarriak

Gure Baztan alde untan euskal idazle edo izkribitzale gutti agertzen zaizkigu orai eta lenagoko denboretan ere, baño ortako dine izan ditugu bai eta aski onak alare, oien artean aipatu dezakegu: Frantzisko Lapitze Arizkondarra, Kruz Goienetxe Elbetearra eta urte aunitzez Amayu'ko erretore izana, Paulo Fermin Irigarai «Larreko» Irurite'n aunitz urtez bizitua. Blas Fagoaga Erratzuarra ospe aundiko Yauna eta eskuararen alde lan aunitz egin zuena, Xabier Lazkotz Elizondarra eta bere bizi Ziga'n egona, Bruno Etxenike sortzez Urdazubierra bano ttipi tipitatik Elizondo'ko Datugarayan bizi zena eta Aita Frantzisko Biguria Elizondarra Aita Kaputxinoa, Aita Pérez Goiena Jesuitak berak egindako liburuen famatuena kondaira agertzen digu eta Yaun ospetsu oien artean, Aita Frantzisko elizondarraren nortasuna eta bai bere eginkizunak gisa untan agertzen ditu:

Aita Frantzisko mastru baten semea zen eta Elizondo'n sortua 1871 garrenko Mayatzearen 20, ean. Bere ikasketak edo estudioak Iruñe'ko Seminarioan egin zituen eta 1894 garrenko Abenduaren 22, an Apez egin zuten. Lendabiziko Meza eman ondoren, Lizaso'ko Erretore izendatu zuten eta erri ortan 1901 garrenko Mayatzearen 26, a artio Ultzama'ko erri egonik; gero Kaputxinoetan sartu zen. 1932 garren urtean Yaunkoak bereganatu zuen. Aita Frantzisko'k eriotz ikaragarria izan zuen, Donosti'ko Kaputxinoetako eliza egiten ari zirelarik eta ango lanak ikusten ari zelarik goitiko sorallutik beitik zolarano erori ta burue autsi. Negargarria aren eriotza. Aita Frantzisko il zen baño oroitzapenak utzi dizkigu eta eskuara maite dugunok aren ipui politak eta mamitsuak dastatu dezakegu. Berak eginkako lan zenbaitzuk agertuko ditut:

1. Kristaua bere Pont-Elizan 1910 garren urtean argitaratua.
2. Lore usaindun mamitsuak 1922 garren urtean argitaratua.
3. Eliz Kantak 1926 garren urtean argitaratua.
4. Loretegi Berria 1932 garren urtean argitaratua.

Gure eskualdean zenbatak irakurri ote dituzte Aita Frantzisko'ren euskal liburuak?

Negargarria da bai gertatzen dena, zein zabarrak garen, zein gutti egiten dugun euskal kulturaren alde, zaletasuna zaletasuna, hor da behar duguna baño zoritxarrez emengo geienak eskuararengatik axolik ez.

ANZANARRI



(Argitaratzen ditugu emen bi idatziak. Pozik eta atsegiñez rramurdiko bi neskato argiak idatziak. Pozik eta atsegiñez ekartzen ditugu gure errebitaren orrietara).

Sorgiña eta gizona

Etxe batian bizi ziren famili bat, eta bertze etxean gizon bat bakarrik.

Familia ai zirelarik afaltzen gustora, sorgiñ bat tximinin gañetik asi zen erraten auxe:

Eroriko te nauk, edo ez ote nauk?

Eta familia izitu zen.

Eta bieraman atsean, berriz sorgiña asi zen erraten atzoko solasak:

Eroriko te nauk, edo ez ote nauk?

Eta familia berriz izituik gelditu zen.

Erran zioten gizonari ia egoin zen etxe ortan, egoten bazen eman ziotela bildotx bat. Gizon ure trankil baitzen, erran zuen:

Bai, bai, geldituko naiz emen.

Gizon arrek artu zuen «portxakaso» makil aundi bat eskuen.

Gero sorgiña asi zen lengo sola sak erraten:

Eroriko te nauk, edo ez ote nauk

Eta gizon arrek erran zion:

Nai baduk erori emen duk, bidea, eta ez baduk nai gaie ortik.

Eta oi erran zuelarik, sorgiñ arrek tximinatik beiti bota zion zango bat.

Isten baten buruen berriz sorgiñak erran zuen:

Eroriko ta nauk edo ez ote nauk?

Gizon arrek erran zion:

Nai baduk erori emen duk bidea, ezbaduk nai gaie ortik.

Oi erran zuelarik berriz sorgiñ arrek bota zion bertze zangoa eta gizon baten burue. Sorgiña etorri zen gizonarengana eta erran zion:

Artzak buru oi.

Eta gizon arrek erran zion:

Nai baduk artzak ik.

Sorgiñak eman zion gizonari auniz diru eta gizon ure gelditu zen konten.

Bertze etxean zauden famili ure eman zioten gizonari bildots bat.

Felisa Miren Iribarren Etxeberriak bialdua. Amairu urtekoa.

Baztango Erratzu'ko eskola.

Sorginen ebaskoa

Orai dela denbora piska bat erri bateko jende guziak izituak egoten omen zioten beti sorginen beldu-rreikin.

Sorgin ok egoten omen ziren lezoko ziloetan, jende guzia ikaratua pasten omen zen, sorginen ondotsutik.

Sorgin ok omen zuten erreini bat aski aberatsa, eta erreina hunek izaten omen zuten beti berekin morroi bat.

Sorgin ok beti erreinaren jelsian egoten omen ziren bazuelakoz sos auniz. Baño sorgin batek erran omen zioten bertze sorginei:

Guk ere inundik ahal badugu aberastuko garela.

Eta bertze sorginak arrituak gelditu omen ziren nola bear zuten aberastu, eta sorgin arrek erran omen zioten:

Aberastuko zirela ladrontza bat inta.

Sorgin guziak gan omen ziren etxe batera lo zirelaik jende guziak, eta ebatsi omen zuten, arrapatu

EUSKAL YOKUAK

AIZKOLARIAK



Aspaldion ez ginen aizkolarietaz mintzatzen baño oraingo untan baginuke ba zer edo zer aipatu bearra. Orai dela lau edo bortz ilabete, Latasa sunbildarrak bota zuen desafioa bera bakarrik bi lagunen kontra, lau kanako onbor zeñek lenago ebaki. Bainen aunitz aldiz denbora gutien barnean guzak aldakuntza aundiak egiten dituzte eta ala gertatu.

Goan den Martxoaren 31'ean Tolosa'ko plazan arizanak dira Astibia eta Latasa aizkorian buruz buru berdinean eta lau kanako onbor zeñek lasterrago moztu. Astibia'k, lau egurrak aukeratzeko eskubidea zukan eta gañera apostua erakustalearekin zen. Latasa sunbildarrak 39 urte ta 83 kilo pisu, Silbestre Juankorena zuen erakustale eta Astibia leitzarrek 24 urte ta 87 kiloko mutillak Kristobal Lazkano erakustale. Apostu untan alderdi bakoitxak 100.000 peza yokatzen zituzten. Larunbatean trabesak Astibiaren alde zauden,

zuzten sos guziak. Gan omen ziren sukaldera eta arrapatu omen zuten sukaldere atea zabal-zabala edekia. Etxe ortako nagusiak erran omen zion bere andreari:

Gaur pasten da gure etxean onez bertzeik, atea emen ola edekia.

Etxi omen zuten sukaldere atea, eta gero gan omen ziren ikustera ia sosak an ote zuzten. Gan omen ziren eta sos guziak eremanak arrapatu omen zuzten.

Senar-emazteak aski triste yarri omen ziren erranez:

Ze in bear dugu sosik gabe?

Etxe artara etorri omen zen gizon bat erratera sorginak aberastu zirela etxe batetik sosa ebatsita. Eta etxe artako nagusiak erran omen zion:

Gure etxetik in izain dute segurroski, ladrontza guzia, zeren guk sos guziak falta tugu.

Bertze gizon arrek erran omen zion etxe artako nagusiari bear zuztela ekarri nunbaitik lau zakur lobo (otso) kastakoak lezoko ziloetan sorgin txar oiek arrapatzeko, eta gero igorriko tugu emendik betiko, eta ala beti biziko gara trankil.

Erreina aski konten omen zen sorgin txar oiek emendik igortzeaz, eta gero erran omen zion bere morroiari:

Orai eztugu geiago sorginen beldurrik izain.

Eta gero morroiak erran omen zion erreinari:

Gu biak bear ginuke esposatu.

Ilabete bat pastu zelaik morroia eta erreina esposatu omen ziren bertze erri batean. Askiz ezaia ederrak omen zuzten, eta aski bazkari ederra ere omen zuten. Auniz yende gonbiatuak beren eztaietaa.

Finitu zutelaiak bazkaria asi omen ziren dantzari, zeinbatzuk fandango-tan eta bertze zeinbatzuk dantza lotuan.

Consolazion Iturbide Elizalde igorria

Zugarramurdiko Eskola.

baño igandean eta borrokaldia as' aintzin, Latasa'ren alde biuriturik 100-60 ri uyu egiten zuten. Gudukaldiak irauñ zuen bizkitartean trabesak baten alde bazuetañ eta bertzearen alde bertzetan, dirua purrusteka omen bazilen Baita ere baziren trabesak irabaztaleak lau kanakoak 68 minutuz baño len moztu baitetz.

Orai erakutsi ditzagun gudukaldiaren gora-berak. Lenbiziko egurretik asita leitzarrek aintzinaldia arturik, Latasa'ri bentaja pixka bat kendu zion eta orduan trabesak Astibiaren alde itzulikatu ziren. Lenbiziko egur untan leitzar gazteak minutu bat pasa atera zion Latasa'ri. Baño bigarreñean sunbildarra urbildu zitzaion guti falta zitzaiola berdintzeko eta orduan trabesak berriz Latasa'ren alde. Bainen Astibia bizkor dago, eztu amor eman nai eta aintzinaldia utzi gabe badoa aintzinat irugarrena ere Latasa'k baño lasterrago mozturik. Laugarrena astera-koan badirudi sunbildarra sasoin izigarrian dagola, onberrari ikaragarriko zampak ematen zizkiolarik; baño orduko Astibia seguru dago eta Latasa'ren indarrak bereala apaltzen dira, nekatua dago nabari du ler egina dagola. Bizkitartean leitzarra gero ta indartsuago laugarren ta azken egurra moztu zuen apostua bi minutoren bentajarekin irabazirik. Astibia gaztea ohore guziekin irabaztun.

Emen bi aizkolarien markak:

ASTIBIA			
Lenbizikoa	12 m.	ta	21 s.
Bigarrena	29 m.	ta	25 s.
Irugarrena	46 m.	ta	03 s.
Laugarrena	61 m.	ta	13 s.

LATASA			
Lenbizikoa	14 m.	ta	25 s.
Bigarrena	30 m.	ta	43 s.
Irugarrena	47 m.	ta	12 s.
Laugarrena	63 m.	ta	13 s.

ANZANARRI

RETEGI GARAILLE?



Foto untan agertzen den pelotaria Erasun'go Retegi diru irakurle maitea. BAKARKA, edo BEDERAZKAKO ESKUZKO PELOTA NORGEIA-GOKETAK jokatzen ari dira.

Txapelketak bi klastekoak dira: Lenbizi eta Bigarren maillakoak.

Bigarren Maillako pelotarietan lau gelditu dira azkeneko partiduetarako: Egiguren Elorza'n kontra jokatzeo eta Pascual Del Val'en kontra aritzeo.

Lenengo Maillako Txapelketan gure Retegi'k iru pelotari badiu oraingoz menderatuak: Ultzama'ko Larraintzar'ren sortua dan Lajos, eta Azkoiti'ko Andueza eta Tapia I. Beste azkoitiar pelotari bat Retegi'ren zai dago Bergara'ko Frontoian jokatzeo: Atano X pelotari on eta tre-bea.

Retegi garaille?

Orduan lenbiziko aldiz Naparra'ko pelotari bat Lenen Maillako Pelotari Profesionalen Txapelketaren Azkeneko partiduraño, edo «finaleraño» elduko da. Auupaaa Retegi!!